



UDALBATZARRA/PLENO MUNICIPAL Nº 15/2018

L A S A R T E - O R I A
K O U D A L B A T Z A R R A K 2 0 1 8 K O
A Z A R O A R E N 1 3 A N E G I N D A K O
O H I K O B A T Z A R R A L D I A R E N A K T A .

ACTA DE LA **SESIÓN**
ORDINARIA CELEBRADA POR EL
PLENO MUNICIPAL DEL
AYUNTAMIENTO DE LASARTE-
ORIA EL DÍA **13 DE NOVIEMBRE DE**
2018.

ETORRITAKOAK:

ASISTENTES:

ALKATE LEHENDAKARIA:
ALCALDE-PRESIDENTE:

D. Jesús Zaballos de Llanos jn. (PSE-EE-PSOE)

ALKATEORDEAK:
TENIENTES DE ALCALDE:

D^a Lourdes Acevedo Beldarrain and. (PSE-EE-PSOE)
D. Agustín Valdivia Calvo jn. (PSE-EE-PSOE)
D^a Maite Iglesias Sánchez and. (PSE-EE-PSOE)
D. Jesús Alonso Ocariz jn. (PSE-EE-PSOE)
D^a Nuria Fernandez Castrillo and. (PSE-EE-PSOE)

ZINEGOTZIAK:
CONCEJALES:

D. José M^a Urdampilleta Zubitur jn. (PSE-EE-PSOE)
D. Pablo Barrio Ramirez jn (EH BILDU)
D^a Leire Elizegi Beloki and. (EH BILDU)
D. Gorka Lizarraga Erro jn. (EH BILDU)
D^a Kristina Bernal Etxeberria and. (EH BILDU)
D^a Estitxu Alkorta Barragán and (EAJ-PNV)
D. Jon Antxordoki Rekondo jn. (EAJ-PNV)
D. David Ares Rodriguez jn. (ADLOP)
D^a Alicia Garcia Patino and. (ADLOP)
D. Alejandro Sáenz Muriel jn. (PP)

IDAZKARIA:
SECRETARIO:

D. Fco. Xabier A. Egea Jauregi jn.

EZ ETORRIAK:

NO ASISTENTES:

KONTUHARTZAILEA:
INTERVENTOR:

D. Ion Murua Guinea jn.

ZINEGOTZIAK:
CONCEJALES:

D. Arkaitz Naya Carrasco jn. (ADLOP)



Lasarte-Oriako Udaletzeko Batzar-Aretoa, 2018ko AZAROAREN 13ko 18:30 zirelarik, alde zurretik horretarako deialdia eginda, Lasarte-Oriako Udaltzartza osoa bildu zen, Jesús M^a Zaballos de Llanos Alkate jaunaren lehendakari zapean, gorago aipatzen diren alkateordeak eta zinegotziak bertan zirela, eta nik urgazita, Francisco Xabier A. Egea Jauregi idazkari jaunak, geroago esango diren erabakiak hartzeko.

Udalbatzarra eratzeko "quórum" nahikoa badagoenez gero, Alkate jaunak erabakia deklaratu du udalbatzarra, eta, haren aginduz, bilkurako gai-zerrendan sartutako gaiak tratatzeari ekiten zaio.

1.- "KABIA"-ren ESKAERA UDALAREN INTERESEKOAK DEKLARATU DAITEZEN ATSOBAKAR ZAHAR-ETXEA HANDITZEKO EGITEKOAK DIREN OBRAK.

Ikusirik Zerbitzu Sozialak, Berdintasuna, Kooperazioa eta Osasun Batzorde Informatiboak, aurtengo azaroaren 6an egindako bilkuran emandako diktamina.

Kontu eman da Kabiak (Foru Erakunde Autonomoak) aurkeztutako eskaeraren inguruan, non eskatzen baitu interes berezikoak edo udalak erabiltzeko modukoak deklaratu daitezela Atsobakar zahar-etxea handitzeko egitekoak diren obrak. Eskaerari erantsi dizkio eskaeraren oinarri diren argudioak. Baldin eta eskatutakoa onartuko balitz, deklarazioak berekin ekarriko luke eraikuntzen, instalazioen eta obraren gaineko zergaren hobari aplikatzea, hala baitago jasoa kasu hauetarako dagokion Udal Ordenantzaren.

En la Sala de Plenos del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, siendo las 18:30 horas del día 13 de NOVIEMBRE de 2018, previa citación al efecto, se reunió el Pleno Municipal del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Jesús M^a Zaballos de Llanos, con la asistencia de los Tenientes de Alcalde y Concejales que arriba se relacionan, y asistidos de mí, el Secretario D. Francisco Xabier A. Egea Jáuregui, para tomar los acuerdos que luego se dirán.

Existiendo "quórum" suficiente para la constitución del Pleno, el Sr. Alcalde declara constituido el Pleno y de su orden se pasa a tratar sobre los asuntos incluidos en el Orden del Día.

1.- SOLICITUD DE "KABIA" PARA QUE SE DECLAREN DE INTERÉS MUNICIPAL LAS OBRAS DE AMPLIACION A REALIZAR EN LA RESIDENCIA DE PERSONAS MAYORES ATSOBAKAR.

Visto el dictamen emitido por la Comisión Informativa de Servicios Sociales, Igualdad, Cooperación y Salud, en reunión celebrada el día 6 de noviembre del presente.

Se da cuenta de la solicitud presentada por Kabia, Organismo Autónomo Foral, pidiendo se declare de especial interés o utilidad municipal las obras previstas para la ampliación del edificio de la residencia para personas mayores "Atsobakar"; a la solicitud incorpora los argumentos que fundamentan su petición. En el supuesto de que se procediera a acceder a lo solicitado, la declaración implicaría la aplicación de la bonificación del impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras contemplada para estos supuestos en la Ordenanza municipal de aplicación.



Eskaera aztertutik, Zerbitzu Sozialetako teknikariak txostena egin du adieraziz Atsobakar zahar-etxea handitzeko obrak interes berezikoak eta udalarentzat baliagarriak direla, haren txostenean jasotzen diren oinarrien arabera.

Aurreko hori guztia dela eta, Batzordeko lehendakari proposamen egin du non baitio Udalbatzarrari proposa dakiola udalaren interesekoak deklaratu ditzala Atsobakar zahar-etxea handitzeko obrak gauzatzea.

Bozkatzera jarrita, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak aldeko hamaika botorekin (7 PSE-EE-PSOE, 2 ADLOP, 1 EAJ-PNV, 1 PP) eta kontrako hiru botorekin (3 EH BILDU), honako akordioa hartzen du:

Lehena eta Bakarra.- Atsobakar zahar-etxea handitzeko egitekoak diren obrak udalaren interesekoak deklaratzeko, deklarazio honek dakartzan ondorioekin.

Barrio jaunak hartzen du hitza eta esaten du kontrako bozka eman dutela, baina horrek ez duela esan nahi Atsobakarreko Zahar Egoitzaren zabalpenaren kontra daudenik. Aipatzen du nabarmena dela beharrak gero eta handiagoak direla, eta planteatzen den zabalpenarekin, egoiliar batzuentzako plaza gehiago egongo direla. Alde horretatik arazorik ez. Azaltzen du arazoa datorrela, eta hortik beraien kontrako bozka, planteatzen den finantzazioaren bidetik. Zeren azken finean, Kabiak eskatzen duena, interes munizipaleko obra deklaratzeko da, eta ondorioz, lizitazioa irabazten duen enpresari, sortuko diren plusbaliatan, Udalak hobariak aplikatu ahal izango dizkio. Modu horretan, enpresa horrentzat, oro har, inbertsioaren kostua txikiagoa izango da, eta geroko zerbitzuaren esplotazioa denbora tarte laburragoan egin ahal izango zukeen. Jarraitzen du esaten lizitazioa irabazten duenak, eraikina egingo duela, zabalpena, horren kostuaren kargu egingo da, baina gero hainbat urtetarako zerbitzuaren kudeaketa enpresa horren esku egongo dela. Hau da, azkenean zerbitzu bat privatizatzen ari direla dio, eta horren kontra daudela beraien. Aipatzen du aurreko legealdian planteatu zela Aldunditik, Zaharren Egoitza beraien esku geratzeko, eta behin prozesu hori bukatuta, EH BILDU-ren ikuspegian zegoena, zerbitzu publikoa denez, zerbitzu hori Aldundiak berak ematea zen. Baina orain hartzen den erabaki

Examinada la solicitud, la Técnico de Servicios Sociales emite informe en el sentido de que es de especial interés y de utilidad municipal las obras de ampliación de la Residencia "Atsobakar", conforme a los fundamentos que en su informe se recogen.

En base a cuanto antecede, la Presidenta de la Comisión formula propuesta a fin de que se proponga al Pleno de la Corporación la Declaración de interés municipal la ejecución de las obras de ampliación a realizar en la Residencia de personas mayores Atsobakar.

Sometida a votación, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria con once votos a favor (7 PSE-EE-PSOE, 2 ADLOP, 1 EAJ-PNV, 1 PP) y tres votos en contra (3 EH BILDU), toma el siguiente acuerdo:

Primero y Único.- Declarar de interés municipal la ejecución de las obras de ampliación a realizar en la Residencia de personas mayores Atsobakar, con los efectos que esta declaración conlleva.



honekin, bidea irekitzen da zerbitzu hori pribatizatzeko. Segitzen du esaten, gure adinekoen zaintza enpresa baten menpe egongo dela, enpresa horrek izango duen helburua etekinak lortzea izango dela, enpresa guztiek bezala, eta ez du hartuko bere gain administrazioak, zeinek, herritarren beharrak asetzea helburu duen. Azpimarratzen du hau dela gehienbat, beraien kontrako bozkaren arrazoi nagusia. Salatzen du, aukeratu den kontratu motarekin, beste guztiaz gain, lizitazioa irabazten duenak ziurtatua izango duela etekina, ez baitu operazioaren arriskua hartuko gainera. Jarraitzen du esaten, dirua falta delako egin dela esaten badute, ez daudela ados, zeren dirua badagoela, mugatua baina badagoela. Gaineratzen du kontua dela lehentasunak jarri behar direla, eta dirudienez, batzuen lehentasunak azpiegitura handiak direla, hau da, abiadura handiko trena, eta horrelakoak, eta ez adinekoei ematen zaien zerbitzua eta zaintza.

Toma la palabra el Sr. Alcalde y dice que le quiere aclarar unas cosas que no ha dicho correctamente. Explica que la consecuencia de declararlo de interés municipal, no es dejar de pagar plusvalías, eso no existe, sino una bonificación del 90% del ICIO, que es el impuesto de la construcción. El impuesto de plusvalías, se paga por el beneficio que ha obtenido un particular a la hora de vender o de heredar un bien, por lo tanto, hay que aclararlo y decir que se ha confundido. Por otra parte, comenta que la decisión que aquí se ha adoptado, nada tiene que ver con el tipo de contrato que Kabia vaya a decidir para gestionar las obras. Reitera que aquí simplemente se plantea que este Ayuntamiento considere o no, que las obras sean de interés municipal, porque al final, el edificio es del Ayuntamiento, y esas obras una vez que las haga la Diputación, en el caso de que se deje de prestar el servicio de residencia de ancianos, revertirá a la titularidad del Ayuntamiento. Por eso se ha planteado por parte de la presidencia, y por eso se ha votado si era de interés municipal o no. Por lo que nada tiene que ver aquí el tipo de contrato, y cree que ha mezclado temas. Continúa diciéndole que donde tiene que quejarse si no está de acuerdo con el tipo de contrato que utiliza Kabia, es en las Juntas Generales, no en el Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

Barrio jaunak hartzen du hitza eta esaten du onartzen duela zuzenketa teknikoak, baina mamia ez dela aldatzen, eta bestetik, beraien esku dagoena egiten dutela, beraz, Batzar Nagusietan ere egingo dutela.

18:34 direnean aretora sartu da Bernal andrea, eta, beraz, aurrerantzean, bozketei dagokienez, kopuruz 15 dira bildutakoak, Udalbatza izatez eta zuzenbidez osatzen duten 17etatik.

Cuando son las 18:34 entra en la sala la Sra. Bernal, por lo que en lo sucesivo y a efectos de votaciones, son 15 el número de asistentes, de los 17 que de hecho y derecho forman la Corporación.

18:36 direnean aretora sartu da Alkorta andrea, eta, beraz, aurrerantzean, bozketei dagokienez, kopuruz 16 dira bildutakoak, Udalbatza izatez eta zuzenbidez osatzen duten 17etatik.

Cuando son las 18:36 entra en la sala la Sra. Alkorta, por lo que en lo sucesivo y a efectos de votaciones, son 16 el número de asistentes, de los 17 que de hecho y derecho forman la Corporación.



2.- EH BILDU UDAL TALDEAK
AURKEZTUTAKO MOZIOA:
"PLAZAOLA BIDEGORRIAREN
LOTURAK".

2.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL
GRUPO MUNICIPAL EH BILDU
RELATIVA A: "CONEXIONES DEL
BIDEGORRI DE PLAZAOLA".

Barrio jaunak hartzen du hitza jarraian transkribatzen den mozioa irakurtzeko:

MOZIOA

Joan den hilaren 16ean harriduraz irakurri genuen egunkarietan Hernani eta Aldundiaren arteko hitzarmen baten berri. Izan ere, Luis Intxauspe Hernaniko Alkateak eta Marisol Garmendiak Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Diputatuak hitzarmen bat sinatu zuten Hernani eta Donostiako bidegorriaren loturan zeuden hainbat zati konpondu eta egokitzeko. Izatez, eskualdearentzat eta gipuzkoar guztiontzat berri ona dela iruditzen zaigu, eta begi onez ikusiko genuke berri hori, ez balitz Marisol Garmendiaren hitzek sortu diguten ezinegonagatik izango.

Hain zuzen, agerraldi horretan Garmendia PSOEko diputatuak honako hau adierazi zuen, eta hitzez hitz hartuko ditugu bere adierazpenak:

- "Donostia Plazaolako Bide Berdearekin lotzeko proiektua amaituko duen bide hau apustu estrategikoa da Foru Aldundiarentzat".*
- "Hernani eta Donostia lotzeko bidea osatuko du, eta, gainera, ibilbide hori Leitzatik pasatuz Irurtzuneraino iristen den Plazaolako Bide Berdearekin lotuko du. Bide hori osatzeko 3 km besterik ez dira falta. Proiektu horri esker Donostiatik Irurtzunerainoko 75 kilometroko ibilbide bat osatuko da, zati erabakigarria izanik Buruntzaldeko mugikortasun jasangarri eta osasungarrirako."*

Sortzen zaizkigun zalantzak agerikoak dira. Alde batetik, Bide Berdea Donostiarekin lotzeko proiektua amaitutzat ematen duela esaten du diputatu sozialistak. Ahaztu egiten zaio Plazaolako ibilbideko zati ederrenetakoak hortik kanpo gelditzen direla, Lasarte-Oriako lur-eremuetatik pasatzen direnak, hain zuzen ere. Luzaera handiko bi tunel eta ikusgarritasun handiko bi zubiz ari gara, gure udalerriko bisita-erakargarri bihur daitezkeenak bere alde egiten bada, Plazaolako Parkearen proiektuarekin, adibidez.

Susmoa dugu Plazaolako ibilbidea amaitutzat eman nahi duela diputatuak bertatik Lasarte-Oriako eremua kanpo utzita, eta hori argitu diezagun nahi dugu.

Larriak iruditzen zaizkigu Garmendia anderearen adierazpenak, alde batetik, gezurretan ari delako Bide Berdearen Donostiako lotura amaituko duela esaten duenean, izan ere, hori Lasarte-Oriako bidea burutzen bada gertatuko baita, eta bestaldekik, Plazaolako Lasarte-Oriako zatiaren alde ez duelako egiten igaro diren ia 4 urte hauetan, gure herriarentzat funtsezko erakargarri turistikoa izan daitekeenean.

Gogorarazi behar dugu 2015eko Gipuzkoako bidegorri sarearen baitan agertzen direla Oztarango zatiaren bi alternatibak Lasarte-Oria Urnietarekin lotzeko (gehigarrian). Lehena, "txanpinoien tunela" bezala ezagutzen duguna da, eta bestea, honen bide alternatiboa, tunelaren afera desbloketzeko zailtasunak ikusita. Biak



egiteke agertzen dira urdinez marraztuta, baina legegintzaldia amaitzear da eta ez dugu mugimendurik ikusi, eta ez dugu egongo denik ere espero, zoritxarrez.

Egiari zor, Garmendia andreak Gipuzkoako Bidegorri Sarearen aldeko apusturik ez du egin Gipuzkoan, eta Lasarte-Oriari dagokionez, are gutxiago. Izan dezagun gogoan Usurbilgo Udalak Atsopakarga lotura burutzea eskatu dionean (Troiaiko trenbide-pasabide aski arristkutsua saihesteko) ezezko borobila jaso duela, era berean Errekaldeko igogailuaren zatia sahiesteko eskatu denean, kostu txikiko obra kasu honetan, biak ala biak lasarte-oriatarren interesekoak ezekoa izan dute.

Aitzakia gutxi ditu Garmendia andreak, diru aldetik soberan izan baitu orain arte inbertsio hauek burutzeko, ia 16 milioi euroko aurrekontuarekin. Aldiz, bere kudeaketa eskasaren ondorioz aurrekontuaren %14 soilik erabili du orain arte, eta hilabete batzuk besterik ez zaizkio geratzen legegintzaldi honi amaitzeko.

Hori guztia horrela, EHBildu taldeak honako erabakia hartzeko eskatzen dio Udalbatzari:

1- Marisol Garmendia diputatuaren adierazpenen salaketa egitea, izan ere, Lasarte-Oriako Plazaolako Bide Berdearen zatia alboratu egiten baitu aipatutako adierazpen publikoan.

2- Lasarte-Oriako Plazaolako ibilbidearen aldeko apustua egitea eskatzen zaio Marisol Garmendiari, tunelaren pasabidea edota alternatiba desblokeatuta, eta Lasarte-Oriako Udalarari inbertsio hori egiteko duen aurreikuspena helaraztea urtea amaitu aurretik.

3- Lasarte-Oriarekiko gainontzeko loturen egoera eta burutzeko aurreikuspena bidaltzea.

4- Alkateak Plazaolako ibilbidearen defentsa egitea diputatuaren aurrean.

5- Mozio hau Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketa Sailari eta Marisol Garmendia andreari helaraztea.

MOCIÓN

El día 16 del mes pasado pudimos leer con sorpresa en la prensa la noticia de un convenio firmado entre Hernani y la Diputación. Según dicha noticia, el Alcalde de Hernani, Luis Intxauspe, y la Diputada de Movilidad y Organización del Territorio, Marisol Garmendia, habían firmado un convenio para el arreglo y acondicionamiento de algunos tramos del bidegorri que enlaza Hernani y Donostia. En sí misma, nos parece una buena noticia para la comarca y para todos los guipuzcoanos, y la veríamos con buenos ojos si no fuese por la inquietud que nos generan las palabras de Marisol Garmendia.

En la mencionada comparecencia, la diputada de PSOE Marisol Garmendia manifestó lo siguiente, y reproducimos literalmente sus palabras:



- *“Este tramo, con el que se concluirá el proyecto que une Donostia con la Ruta Verde del Plazaola, constituye una apuesta estratégica para la Diputación Foral”.*
- *“Completará la vía que une Hernani y Donostia, y enlazará, además, con la Ruta Verde del Plazaola que pasando por Leitza llega hasta Irurtzun. Para concluir ese recorrido no faltan más que 3 km. Gracias a este proyecto se completará el recorrido de 75 km que va desde Donostia hasta Irurtzun, constituyéndose en un tramo clave para una movilidad sana y sostenible en la comarca de Buruntzaldea”.*

Las dudas que nos surgen son evidentes. La diputada socialista da por concluido el proyecto de unión de la Ruta Verde con Donostia, olvidando que algunos de los tramos más interesantes quedan fuera el mismo. En concreto, algunos de los que transcurren por terrenos de Lasarte-Oria. Nos referimos a los dos túneles de gran longitud y los dos puentes notable interés, los cuales pueden constituir puntos de gran atractivo para visitantes, si es que se hace una apuesta por ellos a través del proyecto del Parque del Plazaola, por ejemplo.

Tenemos la sospecha, y esto es lo que queremos evitar, que la diputada pretende dar por concluido el recorrido del Plazaola dejando el tramo de Lasarte-Oria fuera del mismo.

Nos parece graves las declaraciones de a señora Garmendia. Por una parte, porque es falso que con el convenio firmado se concluya la Ruta Verde de Donostia, ya que eso solo sucederá cuando se incorpore el tramo de Lasarte-Oria. Y, por otra, porque en los casi 4 años transcurridos no ha dado ningún paso en lo que se refiere al tramo del Plazaola de Lasarte-Oria, siendo, como lo es en nuestra opinión, un atractivo turístico de primer orden para nuestro pueblo.

Hay que recordar que en la red de bidegorris de Guipúzcoa del 2015 se recogen dos vías alternativas en el tramo de Oztaran para unir Lasarte-Oria con Urnieta (ver anexo). En primer lugar, la conocida como la vía del “túnel de los champiñones”, y otra, alternativa, en vista de las dificultades para desbloquear el conflicto del túnel. Ambas aparecen dibujadas en azul como pendientes de ejecución; sin embargo, la legislatura está próxima a concluir y no se ha visto ningún movimiento, y, desgraciadamente, tampoco esperamos verlo.

Si nos ajustamos a los hechos, la señora Garmendia en ningún momento ha hecho una apuesta a favor de la Red de Bidegorris de Guipúzcoa, y mucho menos en lo que respecta a Lasarte-Oria. Recordemos lo sucedido cuando el Ayuntamiento de Usurbil ha solicitado el enlace con Atsobakar (que evitaría el demostradamente peligroso paso de Troia), al que se ha respondido con un no rotundo. O, en la misma línea, cuando se ha solicitado la solución al problema que plantea el ascensor en el tramo de Recalde, una obra de pequeño costo en este caso. Intervenciones ambas de gran interés para l@as lasarteoriatarras, a las que se les ha respondido con sendas negativas.

La señora Garmendia no tiene argumentos de peso pues, desde el punto de vista de la financiación, ha contado con recursos abundantes para ello al disponer de 16 millones de euros de presupuesto. Ahora bien, como resultado de la deficiente gestión realizada, hasta ahora, cuando faltan ya unos pocos meses para concluir la legislatura, solo se ha gastado un 14% del presupuesto.



Teniendo en cuenta todo lo anterior, el grupo municipal de EH Bildu propone la adopción de los siguientes acuerdos:

1.- Denunciar las declaraciones de la diputada Marisol Garmendia, pues en las mismas se descarta el tramo de la Ruta Verde del Plazaola correspondiente a Lasarte-Oria.

2.- Se exige a Marisol Garmendia una apuesta por el tramo de Lasarte-Oria del Plazaola, desbloqueando el problema bien a través del túnel o bien de la vía alternativa, solicitando que se haga llegar, antes del fin de año, al Ayuntamiento de Lasarte-Oria una previsión de la inversión necesaria para ello.

3.- Le sea comunicado al Ayuntamiento un diagnóstico del estado y previsión de ejecución de los restantes enlaces de la red de bidegorris con Lasarte-Oria.

4.- Que el Alcalde intervenga ante la Diputada en defensa del bidegorri del Plazaola.

5.- Poner en conocimiento del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio y de la señora Marisol Garmendia del presente acuerdo.

Barrio jaunak jarraitzen du hitzarekin mozioa arrazoitzeko eta esaten du ematen duela lotura hori amaituta dagoela, baina ez dela egia. Bertan Lasarte-Oriari dagokion zati bat falta dela betetzeko, ez hori bakarrik, Lasarte-Oriatik Donostiarako lotura ere falta dela, hori ere airean dagoela. Noiz eta legealdi hasieratik aurreikusita zegoenean 16 milioi euroko partida, eta gastatu dena oso zati txikia dela, hain zuzen, %14a.

Toma la palabra el Sr. Valdivia y dice que primeramente quiere decir que han intentado transaccionar con EH BILDU una moción, no ha sido posible, y han tenido que hacer una moción alternativa que creen que es más correcta que la que plantea EH BILDU. Explica que el Ayuntamiento de Lasarte-Oria muestra su apoyo a la vía verde del Plazaola, la apoya en su integridad, y por eso solicita a la Diputación que muestre también su apuesta por dicha vía verde, pero en su integridad. Añade que también solicitarán al Departamento de Movilidad y Ordenación de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que realice un estudio del tramo de la vía verde del Plazaola a su paso por Lasarte-Oria, y que plantee las alternativas que pudieran darse para llevarlo a cabo. Además, comenta que una vez realizado dicho estudio, solicitarán que se reúnan con el Ayuntamiento de Lasarte-Oria para tratar los resultados del estudio, y también para todos los enlaces que pueda haber de los diferentes tramos de bidegorris con el de Plazaola. Reitera que creen que la enmienda alternativa es más correcta, y por eso votarán en contra de la moción.

Barrio jaunak hartzen du hitza eta esaten du egia dela eskaintza jaso zutela mozio bat adosteko, eta gainera funtsean, ados daude PSOE-k aurkeztu duen alternatiba horrekin. Hor esaten dena eta hemen planteatzen dutena, antzekoa dela dio, baina ez dute onartu aurrekariak daudelako. Azaltzen du legealdi honetan bi alditan aurkeztu direla Pleno honetara mozioak bidegorrien alde, bata 2016ko martxoan EAJ-PNV-k aurkeztua, zentzu berean, eta aho batez onartu zena, eta bestea 2016ko azaroan EH BILDU-k aurkeztua. Oinarrian logika berean zihoazen biak, orain PSOE-k aurkeztu duenaren moduan, hau da, bidegorriak elementu garrantzitsuak direla, bai komunikazio aldetik, bai aisialdi aldetik, eta osasun aldetik. Beraz, babestu



eta bultzatu beharrekoak dira, eta horretan ados daude. Baina arazoa da, denbora pasa ondoren, ez dela ezer gauzatu. Horregatik beraien mozioan, bigarren puntuan, aipatzen dute "Lasarte-Oriako Udalarik inbertsio hori egiteko duen aurreikuspena helaraztea urtea amaitu aurretik", hau da, konpromiso bat nahi dute, zerbait zehatza. Zeren bestela, orain dela bi urte bezala, adierazpen egokia bai, baina airean geratzen dena izango dela. Beraz, ez dago inongo elementurik konfiantza edukitzeko, eta horregatik ez dute transakzionala onartu, beharra ikusten dutelako zehazteko, epeak jartzeko erantzunak emateko, etab. Bestela Plenoan mozioak onartzen direla dio, baina horretan geratzen direla, adierazpen hutsetan.

Bozkatzera jarrita mozioa, Lasarte-Oriako Udaltzarrak aldeko sei botorekin (4 EH BILDU, 2 ADLOP), kontrako bederatzirekin (7 PSE-EE-PSOE, 2 EAJ-PNV) eta abstentzio batekin (1 PP), **BAZTERTU** egiten du hura.

*Ondorioz PSE-EE-PSOE-k aurkeztutako emendakina tratatzen da, 3.puntuan PSE-EE-PSOE-k eta ADLOP-k adostutako gehigarria, epeari buruzkoa, kontuan hartuz.

Sometida a votación la moción, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria con seis votos a favor (4 EH BILDU, 2 ADLOP), nueve en contra (7 PSE-EE-PSOE, 2 EAJ-PNV) y una abstención (1 PP), **RECHAZA** la misma.

*Por tanto se pasa a tratar la enmienda presentada por PSE-EE-PSOE, teniendo en cuenta la incorporación en el tercer punto del suplemento acordado entre PSE-EE-PSOE y ADLOP, en relación al plazo.

Toma la palabra el Sr. Valdivia para leer la enmienda alternativa que se transcribe a continuación:

ENMIENDA ALTERNATIVA

El Ayuntamiento de Lasarte-Oria propone la adopción de los siguientes acuerdos:

- 1. El Ayuntamiento de Lasarte-Oria muestra su apoyo a la Vía Verde del Plazaola, un recorrido que aprovecha el trazado tradicional del antiguo ferrocarril de vía estrecha, el Ferrocarril de Plazaola, que unía las localidades de Donosti-San Sebastián e Iruña-Pamplona.*
- 2. El Ayuntamiento de Lasarte-Oria solicita a la Diputación Foral de Gipuzkoa que muestre su apuesta por dicha Vía Verde, en su integridad, como elemento prioritario dentro de la red de bidegorris de Gipuzkoa.*
- 3. El Ayuntamiento de Lasarte-Oria solicita al departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa que realice un estudio del tramo de la Vía Verde del Plazaola a su paso por el término municipal de Lasarte-Oria, planteando las diferentes inversiones y alternativas que pudieran ser necesarias para concluir en su integridad dicha Vía Verde antes de que finalice el año.*



4. *El Ayuntamiento de Lasarte-Oria solicita que una vez realizado dicho estudio se mantenga una reunión entre la Diputación Foral y el Ayuntamiento para tratar los resultados de dicho estudio, así como el estado y previsión de ejecución de los restantes enlaces de la red de bidegorris que afectan al término municipal de Lasarte-Oria.*
5. *El Ayuntamiento de Lasarte-Oria pondrá en conocimiento de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como de la Diputada Foral de Movilidad y Ordenación del Territorio, la adopción del presente acuerdo.*

Toma la palabra el Sr. Ares y dice que ellos tampoco ven mal esta moción alternativa, pero si fuera posible propone una enmienda al punto 3 de la moción, y que pudiera añadirse un plazo a la elaboración de dicho estudio. Concretamente que el plazo fuera hasta finalizar este año. Añade que les parece interesante establecer un plazo para que la moción no quede en una mera declaración de intenciones, y eso es lo que proponen.

Toma la palabra el Sr. Valdivia y dice que aceptan la propuesta.

Bozkatzera jarrita emendakina, Ares jaunaren proposamena kontuan harturik, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak aldeko hamabi botorekin (7 PSE-EE-PSOE, 2 EAJ-PNV, 2 ADLOP, 1 PP) eta kontrako lau botorekin (4 EH BILDU), **ONARTU** egiten du hura.

Sometida a votación la enmienda, con la incorporación de la propuesta del Sr. Ares, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria con doce votos a favor (7 PSE-EE-PSOE, 2 EAJ-PNV, 2 ADLOP, 1 PP) y cuatro votos en contra (4 EH BILDU), **APRUEBA** la misma.

Antxordoki jaunak hartzen du hitza eta esaten du beraiek alderdi bezala inguru horretako galdera asko egiten dituztela, batez ere ohizko erabiltzaileak direlako. Gaineratzen du ados daudela, dudarik gabe, bidegorri sarearekin bukatu behar dela, eta batez ere leku horretan. Azaltzen du askoz ere txukunagoa iruditzen zitzaiela emendakin alternatiboa, eta horregatik egin dutela EH BILDU-ren mozioaren aurka.

3.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: "AZAROAK 25, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEA".

3.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU RELATIVA A: "25 DE NOVIEMBRE, ELIMINACIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES".

Barrio jaunak hartzen du hitza jarraian transkribatzen den mozioa irakurtzeko:

MOZIOA

Azaroaren 25a, emakumeen kontra burutzen den indarkeria mota oro, guztiz onartezina dela esateko eguna da; gainera, indarkeria sortzen duten eragile eta egitura guztiak errefusatzen ditugula esateko eguna da, eta gure herrian ez dugula ez bakerik ez normalizaziorik izango emakume izate hutsagatik emakumeak hiltzen eta



erasotzen jarraitzen den bitartean aldarrikatzeko eguna. Horregatik, egun honetan erakunde publikoak, borroka horretan dugun lehentasunezko eragile-izaera berretsiz, konpromiso zehatzak hartu behar ditugu.

Beraz, Lasarte-Oriako EH Bilduko taldeak honako mozio hau aurkeztu nahi du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta ondoren onartzeko.

ZIOA:

Azaroaren 25a "Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna" dela-eta, Lasarte-Oriako udal honek, bere egiten du gure herria indarkeria matxistarik gabeko gune gisa eraikitzeke ardurak. Eta lehentasunezko konpromiso politikoa berresten du indarkeria mota horren adierazpen guztien kontrako borrokan, egiturazko jatorriaren eta betikotzen duen normalizazioan eraginez, orden sozial injustua aldatzeko eta, emakumeak libre biziko diren justizian oinarritutako elkarbizitza eta emakumeen eta gizonen arteko harreman ereduak errealitate bihurtzeko xedez.

Euskal Herrian, estatistikak aspalditik ari dira agerian uzten indarkeria matxistak gora egiten jarraitzen duela: urtea hasi denetik 8 emakume erail dituzte. Hala ere, ezin dugu ahaztu indarkeria honen adierazpen gehienek, egunero gertatzen direnak, normalizatuak eta inbisibilizatuak jarraitzen dutela.

Hedabideak, publizitatea, telebista, hezkuntza ereduak, emakumeen errepresentazio falta, emakumeak menderatzen dituzten genero estereotipo eta rola, sinesmenak, praktikak eta jarrerak, besteak beste, injustua eta emakumeak gutxien dituen orden sozialaren parte dira. Orden hori soziala, ekonomikoa eta sinbolikoa da, bizitzaren arlo guztiak blaitzen ditu, publikoak nahiz pribatuak, eta, emakumeak genero mandatu patriarkalapean izateko asmoz, indarkeria matxistaren adierazpen guztiak erabiltzen ditu.

Erailketa matxistek gero eta arreta mediatiko gehiago erakartzen duten heinean, (gehienetan emakumeak berbiktimizatzeko edo erantzukizuna emakumeengan uzteko errelatoekin), jendarteak irmoki gaitzesten ditu. Gure ardurak, ordea, haratago joan behar du: indarkeria mota latz hauek legitimatzen eta errazten dituzten indarkeria matxistak, mezu eta adierazpen desberdinen bidez egindakoak guztiak, ikusarazi behar baititugu: jendartean onarpen zabala dutenak eta normalizatuak mantentzen direnak, emakumeek egunero jasaten dituztenak, eta hala izan ez arren intentsitate baxu gisako identifikatzen direnak. Besteak beste, musika munduko hainbat letra zein jarrerak, filme zein bideojokoetako rola edo hedabideek transmititzen duten indarkeria sinbolikoaz ari gara, emakumeen bizitzak eta gorputzak kontrolatzeko erabiltzen diren umiliazioen, tratu txarren edota irainen bidez gauzatzen den indarkeria psikologikoaz edo soldata txarretan edo lan baldintza prekarioetan antzeman dezakegun indarkeria ekonomikoaz ari gara.

Aurten milaka emakumek hartu dituzte Euskal Herriko kaleak, aski dela ozen esateko; milaka emakumek planto egin dute emakumerik gabe mundua gelditzen dela bisibilizatzeko; eta beste horrenbestek aldarrikatu dute sistema judiziala patriarkala dela eta emakumeak babestu beharrean ardura haien bizkar uzten ari dela esan dutenak, erasotzaileak justifikatuz.

Feminismoak erakutsi digu errealitate bat aipatzeak ikusgai bihurtzen duela: indarkeria, bere adiera guztietan, desberdintasunen sistemaren zati den heinean,



ikusezin bihurtu da eta alderdi pertsonalei garrantzi handiegia ematen zaie, eta ikusarazi nahi digute indarkeriazko gertakariak arrazoi pertsonalen ondorio direla eta ez arrazoi sozialen ondorio. Ez da nahikoa indarkeria-adierazpen jakin batzuk aipatu eta salatzea, horrelako gertakari latz bat gertatzen den bakoitzean; gertakaria eragin duten arrazoietara jo behar da, sustraira jo behar da, eta hori egitera, erakundeon ardura ere bada.

Zeharkako esku hartze integralak eta iraunkorrak abian jarri behar ditugu: berbiktimizazioa baztertuta, emakumeak subjektu aktibo gisa hartuko dituzten esku hartzeak; errudun bilakatuko ez dituen esku hartzeak eta, ahots propioa, eragile aktibo diren neurrian, aitortuko dizkieten esku hartzeak. Horretaz gain, bermatu behar ditugu genero ikuspegi ahalduztailea barnebiltzen duen artatze sistema eta erreparazio prozesuak, bai banakoak, bai kolektiboak. Giza eskubideaz ari garen heinean, instituzioen betebeharra da, alegia, mota guztietako indarkeriarik gabeko bizitzak izateko eskubideaz.

Eta zeregin hori, gure egin behar dugun konpromiso hori, gizartea osatzen dugun eragile guztiok gure egin behar dugu, hala egiten ez badugu, indarkeria matxistari eusten jarraituko dugulako. Denon erantzukizuna delako bakoitzaren eragin-eremutik aurre egitea sortzen edo babesten ari den indarkeria matxista amaitzeko: erakunde publikoak, kultur-eragileak, hedabideak, lan-arloko eragileak eta eragile ekonomikoak. Baina pertsonak, familiarek, adiskideek, kolektiboek eta arduradun publikoek ere zuzeneko erantzukizuna dute.

Tokiko erakundeak, indarkeria matxista guztien kontra jarduteko eremu egokiak dira: erakundeak, eskolak, aisialdi edo kirol guneak, etab., betiere jendartea osatzen duten kolektibo eta arlo guztien artean burutu beharreko lana da, denok interpelatzen gaituen arazo soziala den heinean.

Horregatik, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egun honetan, sendo adierazi nahi dugu Euskal Herria feminista, justu eta ekitatezko baten aldeko aldarrikapena, bide horren eraikuntzan honako konpromiso hauek gure gain hartuz:

PROPOSAMENA:

1.- Lasarte-Oriako udalak Emakumeen Munduko Martxak bultzatutako indarkeria matxistari aurre egiteko protokoloa bere egiten du.

2.- Lasarte-Oriako udalak kolektibo feminista eta emakume-taldeekin elkarlanean, Lasarte-Oriari lotutako indarkeria matxistei aurre egiteko plan bat jarriko du martxan, horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta tekniko iraunkor guztiak aktibatuz eta, hobekuntza jarraitua helburu duten jarraipen eta ebaluazio sistemak zehaztuz. Plan horrek askotariko diskriminazioak jasaten dituzten emakumeen egoera espezifikokoak izan ezik (besteak beste, aniztasun funtzionala dutenak, lesbianak, transexualak, migratzaileak, pobretuak), adin txikikoenak eta emakume horien seme-alabenak ere kontuan hartu beharko ditu.

3.- Lasarte-Oriako udalak Indarkeria Matxistaren aurkako Behatoki bat jarriko du martxan, erasoak identifikatu eta salatzeko, indarkeria hori ezabatzeko eta gertatu baino lehen prebenitzeko, emakume-taldeekin eta kolektibo feministekin elkarlanean.



4.- Lasarte-Oriako udal honetan, izateko eta izendatzeko modua orekatzeko xedez, aurrerantzean "indarkeria matxista" adiera erabiliko dugu, adituek hori erabiltzen baitute modu normalizatuan.

5.- Lasarte-Oriako udal honek, 2019ko aurrekontuak definitzeko unean, berdintasun-unitateei beharrezko baliabide tekniko eta ekonomikoak emango dizkie, eta unitate horiek egonkortu eta indartzeko konpromisoa hartzen du.

6.- Lasarte-Oriako udalak Foru Aldundiari eta Emakunderi eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak eta epaitegietako genero-unitateak modu iraunkorrean sendotzeko eta indarreko legeria berraztertzeko konpromisoa hartzeko.

7.- Lasarte-Oriako udalak hezkuntzako agenteei zuzeneko deia egiten die curriculum-lerroetan genero-berdintasuna eta feminismoa zeharka sar ditzaten.

8.- Lasarte-Oriako udalak herritarrentzako, eta bereziki emakumeentzako, dauden baliabideen gaineko informazioa eskuratzeko bideak erraztuko ditu.

9.- Lasarte-Oriako udalak indarkeria matxistarekin zerikusia duten baliabide, zerbitzu eta prozedura guztiak, administratiboak nahiz judizialak, publikoak eta doakoak direla bermatuko du.

10.- Lasarte-Oriako udalak arlo juridikoan, ekonomikoan, laborean, etxebizitzakoan, psikologiak, eta abarrean, indarkeria matxistaren biktimak guztien (adin txikikoak, emakumeak eta seme-alabak) artapena eta erreparazioa bermatzeko deia egiten du, betiere modu koordinatuan, integralean, eraginkorrean eta genero ikuspegia txertatuz.

